

LETICIA VÁZQUEZ ESTEBAN

“Hezkuntza-sistemak irakasten digun guztia zalantzan jartzean oinarritzen gara”

Mexikoko Tosepan kooperatiban burujabetzak garatzeko dituzten proiektuez jardun dugu 23 urteko masewal emakume honekin. Nawat eta totonaku hizkuntzak biziberritzeko proiektuaren koordinatzailea da kooperatiban eta autoeraketaz, genero harremanez eta lurraldearen defentsaz mintzo da, besteak beste. Garabidek antolatutako Hizkuntza Gutxituak Biziberritzeko Lankidetza ikastaldia egiten hilabetez izan da Euskal Herrian, beste hamabi hiztun komunitateko kiderekin batera.

Nola kokatzen duzue hizkuntza biziberritzeko proiektua zuen komunitatearen eta lurraldearen garapena lantzeko ildoei lotuta?

Duela 43 urte Tosepan kooperatiba komunitateek zituzten premiengatik sortu zen: azukrea, kafea eta piperbeltza bidezko prezioetan saltzeko. Hortik aurrera, behar gehiago identifikatzen joan gara: aurrezki eta mailegu kooperatiba, osasun kooperatiba, eskola txikia, turismo kooperatiba... Elementu garrantzitsuak gehitzen joan ziren urteetan eta denak zentzua izan behar zuela hausnartzten hasi ginen. Nortasunari buruz hitz egiten hasi ginen, jantziez eta dantzez harago, gure hizkuntzaren erabileraren galera arazo gisa ulertzen. Nortasuna,

 ASIER BASURTO ARRUTI  IBAI ARRIETA



kultura eta hizkuntza beste elementu estrategiko bat bezala gehitu ziren bizitza ona (*yeknemilis*) deskribatzeko daukagun zuhaitz batean; eskema integralean.

Beste hizkuntza-komunitate batzuetako jendea ezagutu dugu, hizkuntzaren gaia bakarrik lantzen dutena. Baina guretzat, denak guztiarekin duenez zerikusia, argi dago ezin dela aurrera egin modu integralagoan ez bada. Ezinezkoa da hizkuntzaren gaia lantzea zer jan ziurtatuta ez badaukazu, urik ez badago, energiari ez badago, etxerik ez badago. Ezin duzu pertsona baten bizitza duindu, ezta ondo dagoela ziurtatu ere, hori gabe. Beraz, ezin duzu nawa hitzunik ziurtatu.

Tosepan kooperatiban hasieratik jarri zen identitatearen gaia mahai gainean, baina ez zen hori jorratzeko ekintza espezifikorik gauzatzen. Duela bederatzi urte hasi ginen Garabiderekin lanean. Eta geroago gure zuhaitzean sartu zen gaia. Lurralde antolamendu batzorde ofizial bat ere sortu zen eta erakundeek komunitateon autonomia aitortzeko argudio garrantzitsu bat izan zen nawak garela; indigenak garela.

Nola garatzen duzue zuen eraldaketa-prozesuak elikatzen dituen pentsamendua?

Prestakuntza-zentro bat dago (*Kalnemaxtiloyan*), eta prestakuntza-aretoak ditu, jateko tokiak, etab. Beteta dago beti, prestakuntza-eskaintzaren bat dagoelako. Adibidez, finantza-hezkuntzari buruz, gazteentzat edo edukiak ekoizteko.

Dagoeneko onartuta ditugun ideia batzuk zalantzan jartzen dira, eta ikuspegi kolektiboa, kooperatiboa, giza eskubi-deena, soziala eta solidarioa ematen zaio guztiari. 50 bat kide sustatzaile aritzen dira informazioa ematen eta batzarrak antolatzen. Horietan elkarrizketak irekitzen dira, beti presarik gabe, eta asko hitz egiten da, galdetzen da, irizpideak ezartzen dira.

Beraz, elkarrizketa da hezkuntzarako eta erabaki kolektiboetarako tresna nagusia?

Elkarrizketa eta informazioa. Beti pentsatzen dugu komunitate-klabeen. Telefonia mugikorra behar dugu? Zertarako? Kafea saldu behar dudalako behar dut, bizilagunari lapurtzen ari bazaizkio abisatu behar diodalako, landareak argazkiekin dokumentatu behar ditudalako... Hezkuntza-sistemak erakusten digun

guztia zalantzan jartzean oinarritzen gara, baita Interneten aurkitzen duguna ere.

Jendeak tresnek nola funtzionatzen duten jakin behar du, baina baita horiek erabiltzeak sor ditzakeen arazoak ere: egun berean giga guztiak xahutu ditzakezula, zer den lorratz digitala. Informazio hori guztia gure hizkuntzan eskaintzen dugu.

Energiari dagokionez, azaldu behar da eguzki-panelak dituzulako ez dela egin beharreko eraldaketa amaitzen. Nondik dator paneletako litioa? Mendietatik. Beraz, kontsumoa gutxitzeaz hitz egin behar dugu.



Munduaren beste aldea ezagutzean zeure burua ezagutzen duzu, pertsona guztiz desberdinekin egindako harremanekin”

Zein da administrazio publikoekin duzuen harremana?

Autogestio prozesu bati ekin genion Mexikoko Gobernuak komunitateen oinarritzko eskubideak ahalik eta gutxien bermatzen zituelako. Horretarako sortu ziren kooperatibak, gobernuak asetzen ez zituen beharrak asetzeko. Urte haueetan zehar pare bat aldiz, lortutako emaitzengatik, gobernua hurbildu egin zaigu. Eta gu ere hurbildu gara. Izan ere, ez dugu ukatzen Mexikoko zati bat egiten dugula; ez gara Mexiko, baina Mexikoko zati bat egiten dugu. Eta hartzen diren erabakiek eta legeek eragiten digute.

Kooperatiban dugun eskola txikia guk ordaintzen dugu eta ez Gobernuak. Eskolak nawat hizkuntzan ematea behar dugu, nekazaritza bizimodua irakastea... Gure diru-sarreraren zati benetan handia kontsumitzen digu. Maitasunez egiten dugu, baina zergatik izan behar du horrela? Irakasle gobernuak ordaintzeaz hitz egiten ari gara.

Programa publikoak aprobetxatu ditugu, komunitateen behar batzuk gauza-

tzeko. Egoeraren arabera guneak izan dira, eta ez dira beti errespetatu izan gure lan-proposamenak. Elkarrizketarik ez dagoenean, ez dagoenean entzute-jarrerarik, ez dugu egiten. Batzuetan asko higitzen du harreman horrek.

Genero arteko harremanei dagokionez? Lantzen al dituzue? Izan al da aldaketarik denboran zehar?

Jarrera kritikoagoa dut hor. Gai horretan, kooperatiba pixoihaletan dago oraindik. Erabiltzen dugun zuhaitzean, lerro bakar batek ere ez du emakumeen bizitza-planaz hitz egiten. Zuhaitzaren beheko aldean balioak daude. Ekitatearen balioa dago, baina ekitate hori ez da genero-ekitatean ardatzen. Emakumeak kooperatibaren % 74 gara. Niretzat argi dago emakumeek behar duguna kooperatibaren beharra izan behar dela.

Kooperatiban edo komunitateetan ez ditugu baldintza berdinak bizi. Kooperatiban gehiago erabiltzen da hitza, emakumeak ahaldunduago daude. Baina zure etxera iristen zara eta emakumeek ustez bete behar duten rola betetzen jarraitzen duzu: zaintza, etxeko zereginak... eta hori ez da zalantzan jartzen. Hala ere, uste dut kooperatibak, zuzenean landu gabe edo genero-ildo espezifiko bat izan gabe, izugarritzko ekarpena egin duela kide askoren ahalduntzean. Emakume kooperatibista bat ez da prestakuntza jaso ez duen emakume bat bezalakoa. Askok nabaritzen da. Gehiago hitz egiten duten emakumeak dira, gehiago egiten dutenak, beren komunitateetan lidergo-postuak dituztenak, erabakiak hartzen dituztenak.

Baina, era berean, uste dut emakumeekin lotzen diren zeregin eta espazio jakin batzuk erreproduzitzen jarraitzen dugula (tortilleria bat, marmeladaren ekoizpena). Beti zaintza, jaten eman eta osasunari lotutakoak. Energiari buruzko prestakuntzan 50 baino gehiago ginen eta bi emakume bakarrik. Hor uste dut kooperatibak ez duela nahikoa zalantzan jarri. Motel doa aurrera. Denbora gehiago eskaini beharko genioke.

Zeintzuk dira nawat eta totonaku hizkuntzen erronka nagusiak egun?

Estandarizazioa erronka handia da. Nawat hizkuntzak 23 aldaera ditu. Idaztea eta irakurtzea zaila da. Desberdin idatzita ikusten duzu toki batean eta bestean. Gainera, mundu guztiak ez daki irakurtzen. Estandarizazioak espazio asko irabazteko eta funtzio berriak es-



kuratzeko aukera emango liguke. Aha-
leginak egin dira, baina ez dago behar
adinako adostasunik. Mexikon gehien
hitz egiten den hizkuntza indigena gara,
1.600.000 hiztun baino gehiagorekin,
eta beste hizkuntza txikiagoei baino
gehiago kostatzen zaigu adostea.

**Zein eremutan dago indartsu nawat
hizkuntza eta non dago ahul? Noiz
eta non da beharrezkoa nawat?**

Gure hiztun kopurua gutxituz doa, hiz-
kuntza transmititzeari uzten zaiolako.
Erronka bat dugu hezkuntza-sisteman.
Sistemak benetan zigortzen gaitu gure
hizkuntza hitz egiteagatik, azal kolorea-
gatik; diruzko beste mundu bat agintzen
digu beste bizitza plan bat aurrera era-
maten badugu. Jendeak bere nortasuna
eta sustraiak galtzea besterik ez du egi-
ten. Familia eta gurasoak mundu eta sis-
tema horretan bizi badira, zaila da be-
launaldi berriek bide hori ez jarraitzea.

Beste erronka bat gure hizkuntza-
corpusa zabaltzea da. Gaur egun, fami-

lian, etxean, komunitatean erabiltzen
da. Espazio pribatueta eta familia- eta
komunitate-eskalan. Baina badira tek-
nologiak bezalako gaiak, gauza asko-
ri buruz hitz egiteko hitzik ez dauzka-
gunak; ez dago hiztegiarik. Eta ez dugu
akademiarik hiztegia sortzeko eta es-
tandarizatzeko. Tailerrak egiten ditugu
azaltzeko nawat ez dela bakarrik fami-
liako eta tradizioko gaietarako, eta hori
lantzen ari gara.

**Zer inplikazio ditu digitalizazioak
zuen hizkuntzetan?**

Ondorio asko ditu. Dena gaztelaniaz
ikusten dugu. Eta sentitzen dugu ez du-
gula gure hizkuntza behar mundu ho-
netan bizitzeko. Gaztelania edo ingelesa
ikasita egin daiteke. Ez dago zure hiz-
kuntzan hitz egiteari uzteko esplizituki
esaten dizuten mezurik, baina kontaki-
zun edo logika askok idealizatzea era-
maten zaituzte eta esaten dizute zure
lurraldetik joateko eta zarena izateari
uzteko. Baita haur txikientzako edukie-

tan ere. Ez duzu zure historiako ezer
aurkitzen.

**Zer eginkizun du arteak eta kultur
sorkuntzak zuen komunitateetan?
Hizkuntzaren prozesuekin zerikusia
al dute?**

Ikus-entzunezko baliabideek edukiak
oso modu asertiboan transmititzeko gai-
tasun handia dute. Gaur da film labur eta
dokumental gehien erabiltzen dugun
eguna. Harrapatu egiten du jendea.
Kooperatibatik kanpo, baina gure ingu-
ruan, bada arte galeria bat bere lanetan
identitate zentzua txertatuta daukana.
Cuetzalango herri-ingurunea eralda-
tu dute irudiak eta marrazkiak jarrita.
Modu parte-hartzailean egiten dira; gaz-
teek hitz egiteko balio du prozesuak. Eta
dantza tradizionalen irudiak dira gehie-
netan. Polita da jakitea maitasunez ikus-
ten ditugula sustraiak eta artea egiteko
balio digutela. Cuetzalan herri turistikoa
da eta irudi hori ematen zaie bisitariei.

**Nola ulertzen duzue sustraien aldeko
borroka eta beste eragile batzuekin
garatzen dituzuen nazioarteko
harremanak?**

Truke hauek ikuspegia zabaltzeko
leihoak dira. Nahiko ohikoa da gertatzen
zaiguna gertatzen zaien bakarrak garela
sinestea eta ikuspegi ilusionagarriak ez
aurkitzea. Mexikon antzeko errealtatea
dagoelako. Baina munduaren beste al-
dea ezagutzean, desberdintasun guztien
gainetik, zeure burua ezagutzen duzu
pertsonek guztiz desberdinekin egindako
harremanekin. Planeta hobeto ulertzera
eramaten zaitu, munduari buruz duzun
ikuspegia osatzera. Eta pentsamenduak
eraldatzen zaitu, prozesu mental batean,
eta gero zure pertsona eta etxean egiten
duzuna iraultzeko aukera ematen dizu.
Antolamenduari dagokionez, beste ko-
kapen bat eman digu prestigio mailan,
beste bitarteko batzuk baloratzeko eta
eskuratzeke. Ikusi dugunaz gain, ikusi
gaituzte. Eta horrek aukera berriak sor-
tzen ditu. ●

BABESLEA:



**hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera...**

arnasa gara, euskaraz gara!